

Baserriaren etorkizuna

Deia, 1977-08-16.

Andoni Lekuonak bidali digun idaz-lanez gainera ("Baserriaren sustrai bila", 13.8.77) Bizkai-tik bidalitako beste bat ere agertu da egun berean egunkari hontan bertan.

Hau erdaraz agertu da, eta aitatu nahi nuke.

Honek ez du gure arazo nagusiaren angulo berdinetik baserria fokorutzen, sindikal aldetik ahalegina. Hau, oraindik bizkaitarrak egitekoak dira; egingo al dute, Bizkaiko taldearen aburua eta informazioa beharrezko dugu. Aitatzen dutan hau Bernardo de Mesanza jaunak idatzi du. Lurlantze-Injineru da, eta gai hontaz asko idatzi duena. Honek ikusten dio gure baserriari etorkizuna, eta ona.

Hara aitatzen ditun puntu batzu.

Lehendabizi, itsas aldeko Euskal Herriari dagokion baserriaz ari dela dio; lur legorragoko, Nafar-Araba aldeko beste baserri mota bat ere egon bait-dago. Eta hontaz ari ginen atzo ere, alegia. Bizkaia, Gipuzkoa, Laburdi eta Zuberoari gehien bat dagokion baserriaz.

Eta Mesanza jaunak dionez, ba du baserri honek etorkizunik.

Alderdi hontako lurak ezeak dira, eta ez dago hobeagorik belar, haragi eta zugaitzetarako. Eta aitatzen ditu baserriak beharrezko dituen lau oinharriak: Etxebizitza, laborantza, abel hazkuntza eta zugaitzak, oihanak.

Eta ematen ditu jakingarri batzu:

Industrian lan egiten duen hainbatentzat ba da baserri hau osagarri: Bai ondasun aldetik, eta baita osasungarri denetik ere. Baratz eta frutu bideak errazak eta errenditzen dutenak izan ditezke, inguruko plazetan gero eta gehiago beharko baitira barazkiak, eta ez merkeak, gainera. Haragiaz, berriz, ba dirudi etorkizunik izango duenik. Eta zuhaitzak aldatzeko aukera egokiak egiten badira, honeri ikusten dizkion alderdiak ere onak dira.

Baina, hemen, gura kulturaz ari geranean bezala, praktikotasun baten bila jarri behar dugu.

Bide hoiek ezin ditu baserriak berez ibili. Gure herriko erakundeak behar ditugu, eta hoiek politika bideak ibili beharko dituzte inora iritxiko badira.

Hasi behar dugu eskualde guzietan arazo hontaz eskakizunak egiten.